

**2016KO URTARRILAREN 18AN SASIETA MANKOMUNITATEKO
BATZORDE ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar- Aretoa

EGUNA: Hemezortzia

HILABETEA: Urtarrila

URTEA: Bi mila eta hamasei.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko bostak eta erdi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

LEHENDAKARIA: Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo ordezkaria

BILDUAK: Eluska Ibarguren, Altzagako ordezkaria
Luis Garmendia Sagastume, Aramako ordezkaria
Asier Rodriguez Etxeberria, Ataungo ordezkaria
Edorta Diaz del Rio, Beasaingo ordezkaria
Garikoitz Aiesta Etxaniz, Ezkio-Itsasoko ordezkaria
Arantxa Bidegain Ormazabal, Gabiriako ordezkaria
Jesus Maria Garmendi Gorostidi, Gaintzako ordezkaria
Ioritz Imaz Baztarrika, Idiazabalgo ordezkaria
Asier Garro Sodupe, Itsasondoko ordezkaria
Ane Irastorza Izagirre, Lazkaoko ordezkaria
Iñaki Estensoro Sarasola, Lazkaoko ordezkaria
Koldobike Olabide Huelga, Legazpiko ordezkaria
Oscar Valbuena Pascual, Legazpiko ordezkaria
Urtzi Larrea, Legorretako ordezkaria
Iñaki Ugalde Alustiza, Mutiloako ordezkaria
Jokin Garmendia Asurabarrena, Olaberriko ordezkaria
Igor Eguren Izagirre, Ordiziako ordezkaria
Miren Alazne Sukia Galparsoro, Ordiziako ordezkaria
Olaia Izagirre Cruz, Ormaiztegiko Udala
Eñaut Telleria Urkia, Segurako ordezkaria
Igor Zubillaga Aguado, Urretxuko ordezkaria

Itziar Agirre Berriotxo, Urretxuko ordezkaria
Jose Antonio Etxabe Nazabal, Zaldibiko ordezkaria
Joseba Izagirre Arocena, Zegamako ordezkaria
Amaia Junquera Landeta, Zeraingo ordezkaria
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria
Ricardo Lozano Landart, Zumarragako ordezkaria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran ere parte hartu dute, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak, Iñaki Erauskin Urretabizkaia Zerbitzuburuak eta Enrike Enparantza teknikariak.

1.- AURREKO AKTA. 2015eko abenduaren 28ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- AURREKONTUA. 2016. ekitaldirako ohiko aurrekontu proiektua eta aurrekontua gauzatzeko araua eta kostu finko eta aldakorren azterketa eta ondoriozko udal ekarpenak onesteko proposamena.

Ezagutzera eman da, 2016. Ekitaldirako aurrekontuaren gastu orokorren eta sarrerren egoera nahiz aurrekontua gauzatzeko araua, hots:

GASTUEN AURREKONTUA. LABURPENA KAPITULUKA		
Kap.	Izena	Euroak
I	Pertsonal-Gastuak	550.890
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	7.847.450
III	Finantza-Gastuak	0
IV	Transferentzia arruntak	0
VI	Inbertsio errealak	1.282.430
VII	Kapital-Transferentziak	1.737.540
VIII	Finantza-Aktiboak	92.850
IX	Finantza-Pasiboak	0
		11.511.160

SARREREN AURREKONTUA. LABURPENA KAPITULUKA		
Kap.	Izena	Euroak
I	Zuzeneko zergak	0
II	Zeharkako zergak	0
III	Tasak eta bestelako sarrerak	1.612.550
IV	Transferentzia arruntak	5.965.800
V	Ondare-Sarrerak	94.350
VI	Inbertsio Errealen Besterenganaketa	0
VII	Kapital-Transferentziak	236.000
VIII	Finantza-Aktiboak	3.602.460
IX	Finantza-Pasiboak	0
		11.511.160

AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA. 2016

1. artikulua.- **AURREKONTU OROKORRAREN EDUKIA**

Sasieta Mankomunitateko Aurrekontu Orokorra **11.511.160 euro**takoa da. Sarrerak eta gastuak berdinak dira.

2. artikulua.- **BERMEAK EMATEKO MUGA**

Sasieta Mankomunitateak ezingo du abalik eman ezta edozein motatako bermerik hitzartu hirugarren aurrean.

3. artikulua.- **ZORPETZE MUGA**

Mankomunitateak, 2016 ekitaldian, epe luzera eginiko zorpetze eragiketen ondorioz sortutako zor bizi berriaren zenbateakoa, dokumentu bidez edozein modutara azalduta ere, 2016ko abenduaren 31n **0 euro**ko kopurua ezingo du inolaz ere gainditu.

4. artikulua.- **KREDITUEN ERREGIMEN OROKORRA**

Kredituen arteko binkulazio maila

Gastuetarako kredituak Aurrekontu Orokorrean eta ondoren, behar bezala onetsitako aldaketetan baimenduak izan diren xederako erabiliko dira soilik.

Mankomunitateko Aurrekontuan baimendutako kredituak izaera mugatzaile eta binkulantea izango dute, ondoren adierazitako binkulazio mailaren arabera:

- Programa funtzionala eta kontzeptua, gastu arrunten ziozko eta kapital transferentzia eta diru-laguntzen, ondasun-inbertsioen eta finantza aktiboan aldaketan ziozko gastuetan.
- Programa funtzionala eta kapitulua, ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuetan, finantza gastuetan eta finantza pasiboan aldaketan ziozko gastuetan.
- Kapitulua, pertsonalaren gastuetan.

Handitu daitezkeen kredituak

Mankomunitateko gastuen aurrekontuko partida hauek handitu daitezke, bakoitzarentzat egokitzen den finantzaketaren arabera.

HANDITU DAITEZKEEN KREDITUAK -		FINANTZAKETA -	
PARTIDA	HASERAKO AURREKONTUA	PARTIDA	HASERAKO AURREKONTUA
623.162.30.02	1.106.840	400.162.30.01	236.000
		861.162.30.02	3.602.460
721.162.30.01	1.737.540	861.162.30.02	3.602.460
861.162.30.02	92.850	560.162.30.01	92.850

Onespena kredituen habilitazio espediente bidez egingo da eta onespena Lehendakarian egingo du.

5. artikulua.- KREDITUEN ALDAKETAREN ERREGIMENARI APLIKAGARRI ZAION ARAUDIA.

Aurrekontuko kredituak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-entitateen aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua ezarritakoaren arabera aldatu ahal izango dira.

Kreditu aldaketako proposamenek afektatutako programa funtzionala zein den eta egin behar diren ekimenetan zein lortu nahi diren helburuetan eragina zein den adierazi beharko dute, eta hala behar izanez gero, baita dagokien adierazle zenbatekoa eta epealdia ere.

Espedienteak ondorengo ataletan araututako onespenerako izapideen eraginpean jarriko dira:

Kreditu habilitazioa

Aurrekontuaren sarreraren egoeran aurreikusi gabe lortutako sarrerek gastuen aurrekontu barruan kredituak sor ditzakete.

Habilitaziorako gai diren sarrerak 21/2003ko Foru Arauko 31.2 artikuluan ezarritakoak dira.

Lortutako sarrerak finalista izaera dutenean habilitazioa Mankomunitateko Lehendakariak onetsiko du eta gaineratiko kasuetan Batzorde Errektoreak.

Kreditu transferentzia

Urteko Aurrekontuan, Lehendakariak izango du transferentzia onesteko eskumena, transferentzia programa funtzional bereko partiden artean edota programa ezberdinen artean ematen denean, jatorriko programaren eta norakoaren arteko aldaketan bariazio metatua haseran aurrikusitako kontsignazioa **%25ean** gaintzen ez denean.

Edonola ere Batzorde Errektoreari dagokio inbertsio errealeko kontsignazioa gutxitzen duten transferentziak.

Kreditu gehigarriak

Ordainketa kreditua kontsignaturik ez duten gastuak egin behar badira edota egonda ere, nahiko izango ez balitz eta handitu ezina, orduan 21/2003ko Foru Arauako 34. artikuluan ezarritakora egokitu beharko da.

Mankomunitateko Lehendakariak onetsiko ditu kreditu gehigarriak, metatuta Aurrekontuan urteko **%5eko** igoera suposatzen ez dutenean.

Kreditu Txertaketa

Indarrean dagoen ekitaldiari, aurreko ekitaldiko aurrekontuko gastuen orrien barruko ordainketa kredituak txertatu ahal izango zaizkio, beti ere aintzatetsiak diren betebeharren menpean egon gabe 21/2003 Foru Arauaren 32 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Lehendakariari dagokio kreditu txertaketak aurrera eramateko almena.

Ondorengo ekitaldiko aurrekontuan, likidazioa onartu aurretik, oraingo ekitaldiari edo horren aldaketei dagozkien kredituak txertatu ahal izango dira, baldin eta abenduaren 31n obligazioa onartu gabe badaude eta guztiak batera beharkizun hauek betetzen badituzte:

21/2003 Foru Arauaren 32 artikuluan jasotako zirkunstantzietako batean egotea.

Zerbitzuburuaren txostenaren bitartez kreditua aurrerapenez txertatzeko beharra frogatzea.

Aldi berean kreditu hori ekitaldi honetan txertatu ez izana, salbu dirusarrera helburudunen bitartez finantzaturako kapital eragiketak badira.

Txertaketa aurreratua ekainaren 30 baino lehen egin behar da beti.

Kredituen txertaketa aurreratuek jatorrizko aurrekontuan zuten helburu berbera izango dute.

Kredituen txertaketa aurreratua gauzatuko da baldin eta horretarako baliabide finantzario nahikoak badaude. Horretarako, finantzaketa iturritzat hartuko dira apirilaren 1/2003 Foru Arauaren 32 artikuluan jasotakoak.

Lehendakariak onartuko du kredituen txertaketa aurreratua, Fondoek kontuhartzaileak txostena egin ondoren, besteak beste finantzaketa nahikoa dagoela adieraziz.

Kredituen behin-betiko txertaketa egin baino lehen, aurreko artikuluetan behin-behineko txertaketa arautua duten kredituen ordainketak tramitatu ahal izango dira.

Kredituen txertaketa aurreratua behin-behinekoa izango da, eta aurrekontua likidatu ondoren behin-betiko onartuko da.

6. artikulua. – GASTUAREN EXEKUZIOA

Gastuen Aurrekontuko gestioaren faseak

Mankomunitateko gastuko aurrekontuaren gestioa honako fase hauetan egingo da:

- a) Gastuaren baimena
- b) Gastuaren erabilera edo konpromezua
- c) Obligazioaren onarpena eta likidazioa
- d) Ordainketa agindua

Gastuen baimena eta erabilera

Urteko **12.000 euratakotako** kantitatea gainditzen duten elkarren artean homogeneous diren ondasun eta artikulutako gastuak baimentzeak eta erabiltzeak Mankomunitateko Kontuhartzaitzaren aurretiazko fiskalizazioa esijituko du, gastuen "B" (Baimena) eta "E" (Erabilera) fase kontableak kontabilizatuz.

Era beran, goian aipatutako zenbatekoa gainditzen duten eta egungo araudiaren arabera kontratazio prozesurik eskatzen ez duten gastuen kasutan, ahal izanez gero, eskaintza bat baino gehiago eskatuko dira.

Mankomunitateko Lehendakariari dagokio gastuen baimena eta erabilera ematea.

Obligazioen onarpena

Gastua behin fiskalizatu eta gero, Mankomunitateko Lehendakariari emango zaio dagokion onespina jasotzeko.

Ordainketa agindua

Mankomunitateko Lehendakariari dagokio ordainketa aginduen erlaziotan gauzatutako ekintza administratibo bidez, ordainketak agintzea.

7. artikulua.- ZURITU BEHARREKO ORDAINKETAK

Egiten den ordainketa-agindu orok bere justifikazio dokumentala behar duen printzipioaren salbuespen gisara, eta hurrengo artikuluan araututako kutxa finkoko aurrerakinen zirkuitu bidez egin ezin denean, "zuritu beharreko" izaeradun ordainketa-aginduak egin ahal izango dira, honako aurrekontu-partiden kargura eta adierazitako mugen barne:

PARTIDA	IZENDAPENA	JASOTZAILEA	GEHIENEO ZENBATEKOA
231.912.00.01	Gobernu Organuen dieta eta lokomoz.	Goi karguak	2.500,00 €
230.920.00.01	Langileen dieta eta lomozioa	Langileak	250,00 €

Egindako ordainketak dirutza jaso eta gehiezez handik hiru hilabetera zuritu beharko dira.

Zuritu beharreko ordainketa-aginduak egin ahal izateko nahitaezkoa izango da jasotzaileak aurrez jaso eta artean zuritzeke dirutzarik ez izatea.

8. artikulua.- **KUTXA FINKOKO AURRERAKINAK**

Aldizkako izaera duten edota errepikakorrak diren xedeetarako zuritu beharreko ordainketek kutxa finkoko aurrerakin izaera izango dute. Aurrerakinak ematea nahiz itzultzea aurrekontuz kanpoko eragiketak izango dira.

Kutxa finkoko aurrerakinak honako xedeetarako eman ahal izango dira soil-soilik, eta ondorengo mugen barne:

XEDEA	ARDURADUNA	GEHIEN.ZBT.
Bulego-materiale ez-inbentariagarria eta beste zenbait gastuetarako	Maite Albisu Mujika	1.000,00 €

Kutxa finkoko aurrerakinak Presidentearen dekretuz onartuko dira, dagokion area-ordetzariaren proposamena ikusita. Diru-hornidura automatikoki berritu daiteke aurrekoaren likidazioa aurkeztuta.

Kutxako arduradun, ordaintzaile, nahiz habilitatuek jasotako dirutza Korporazioaren Kutxan kokatu beharko dute eta behar ahala erabili ahal izango dute aurrikusitako xedeetarako. Guztiz galerazita gelditzen da dirutza hori nor bere helburu pertsonaletarako erabiltzea. Aurrerakinen jasotzaileek, hala hobetsiz gero, kontu korrante bat ireki ahal izango dute entitate finantzario batean udalaren izenean, jasotako dirutza bertan sartu eta, horren beharra dutenean baimendutako xedeetarako, beren sinadurarekin soilik erabili ahal izateko.

Aurrerakinen jasotzaileek jasotako dirutzaren kontrola eraman beharko dute kontu korranteen liburu baten bitartez, bertan zordunduz eta abonatuz bai sarrerak, bai fakturaz zuritutako irteerak.

Era berean, udal diruzainak ere liburu laguntzaile bat eraman beharko du kutxa finkoko aurrerakinak kontabilizatzeke, bertan zehaztuz jasotzaile bakoitzari emandako dirua eta zuritutako zenbatekoa.

Kutxa finkoko aurrerakinen jasotzaileek udal kontuhartzaitzari eman beharko diote jasotako dirutzaren berri, kontabilitatea eta egindako ordainketen jatorrizko ordainagiriak aurkeztuz. Berri emate hau aurrerakina eman eta handik hiru hilabetera egin beharko da gehiezez eta, beti ere, abenduaren 15a baino lehen.

Aurrerakinak zuritzean, dagokion aurrekontu-partidari aplikatu beharko zaizkio ordain-aginduak.

9. artikulua.- *DIETA ETA JOAN-ETORRIEN KALTEORDAINAK.*

Presidenteak eta gainerako karguak, mankomunitatearen barrutitik kanpora egiten dituzten joan-etorriengatik, honako kalteordainen eskubidea izango dute:

a) Joan-etorrien gastuak:

- Joan-etorria nor bere ibilgailuan eginez gero: 0,29 euro kilometroko, gehi bidesariak, gehi aparkaleku-gastuak, beti ere gastua ordainagiriz zuritu eta gero.
- Bestelakoetan: egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz zuritu eta gero.

b) Otordu eta egonaldien gastuak:

- Gaua ohiko helbidez kanpo eginez gero: Fakturaren zenbatekoa, gehienez ere eguneko 72,12,- eurotako mugarekin.
- Bestelakoetan: Fakturaren zenbatekoa gehienezko muga hauekin: Bazkari eta afarietan otorduko 15,03,- euro; gosaria 3,61,- euro.

Funtzionarioek eta pertsonal kontratatuak, egindako zerbitzuen kalteordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan jasotako indemnizazioak jasotzeko eskubidea izango dute.

Kasu guztietan, bai hautetsiek, bai gainerako udal langileek, egindako bidaiaren memoria idatzi beharko dute, bertan noiz eta nora joan diren, irteera eta itzuleraren ordua, eta egindako gestioen berri jasoz. Agiri honetan bertan adierazi beharko dute onartutako tarifen arabera zenbatekoa den jaso behar duten kalteordainaren zenbatekoa.

Jarraian, kostu finko eta aldakorren azterketaren berri eman da eta baita ere, Aurrekontuan aurreikusi diren Mankomunitatea osatzen duten udalek egin beharreko ekarpenak.

SASIETA MANKOMUNITATEA / MANCOMUNIDAD SASIETA
2016KO AURREKONTUA / PRESUPUESTO 2016
UDAL EKARPENAK / APORTACIONES MUNICIPALES

UDALERRIAK MUNICIPIOS	2015 EKITALDIA / EJERCICIO 2015			2016 EKITALDIA EJERCICIO 2016
	Arrunta-Ordinaria	Berezia-Especial	Guztira-Total	
ALTZAGA	13.028,95 €	1.157,82 €	14.186,77 €	9.425,86 €
ARAMA	14.808,39 €	1.315,95 €	16.124,34 €	15.986,01 €
ATAUN	104.777,75 €	9.311,11 €	114.088,86 €	110.271,06 €
BEASAIN	703.438,32 €	62.511,32 €	765.949,64 €	1.259.122,14 €
EZKIO-ITSASO	51.047,91 €	4.536,39 €	55.584,30 €	50.834,68 €
GABIRIA	36.395,11 €	3.234,27 €	39.629,38 €	41.010,34 €
GAINTZA	16.006,03 €	1.422,38 €	17.428,41 €	11.628,81 €
IDIAZABAL	125.536,45 €	11.155,85 €	136.692,30 €	220.357,99 €
ITSASONDO	47.552,07 €	4.225,73 €	51.777,80 €	60.607,95 €
LAZKAO	321.768,70 €	28.594,10 €	350.362,80 €	442.047,15 €
LEGAZPI	512.566,20 €	45.549,39 €	558.115,59 €	604.307,41 €
LEGORRETA	87.795,79 €	7.802,01 €	95.597,80 €	145.848,75 €
MUTILOA	36.469,19 €	3.240,85 €	39.710,04 €	20.995,03 €
OLABERRIA	113.308,13 €	10.069,17 €	123.377,30 €	80.142,59 €
ORDIZIA	569.673,58 €	50.624,26 €	620.297,84 €	945.775,05 €
ORMAIZTEGI	90.824,73 €	8.071,17 €	98.895,90 €	71.973,44 €
SEGURA	87.451,71 €	7.771,43 €	95.223,14 €	121.510,77 €
URRETXU	377.517,86 €	33.548,27 €	411.066,13 €	574.557,09 €
ZALDIBIA	101.541,22 €	9.023,50 €	110.564,72 €	122.580,11 €
ZEGAMA	90.531,05 €	8.045,08 €	98.576,13 €	117.095,69 €
ZERAIN	27.560,59 €	2.449,18 €	30.009,77 €	21.145,14 €
ZUMARRAGA	602.200,26 €	53.514,76 €	655.715,02 €	888.556,68 €
TOTAL	4.131.799,99 €	367.173,99 €	4.498.973,98 €	5.935.780,35 €

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 17
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 2
Etorri gabeak: 9

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. 2016. ekitaldirako aurrekontuari hasierako onespina ematea.

Bigarren. Jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, hamabost eguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik ez bada aurkezten behin betiko onartuta geratuko da.

3.- PERTSONALA. 2016. ekitaldirako plantila organiko eta lanpostu-zerrenda onesteko proposamena.

Ezagutzera eman da plantila nahiz lanpostuen zerrenda, adieraziz lehengo urtearekiko ez duela inolako aldaketarik, baina gogoratu da Eusko Jaurlaritzari eskatu zaiola idazkari-kontuhartzaile lanpostua Mankomunitatearentzak klasifikatzeko eta erantzuna emandakoan seguraski bi instrumentu hauek aldatu beharrean egongo da, lanpostu hori ere aurreikusteko eta hornidura legeak dioen moduan egiteko.

2016 URTEA				
SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE ERREKTOREAK 2016KO URTARRILAREN 18AN EGINIKO BILKURAN, 2016RAKO ONETSI DUEN MANKOMUNITATEKO PLANTILA ORGANIKOA				
PERTSONAL LABORAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK				
LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KOPURUA	AZPITALDEA 7/2007 Legea	EGOERA	OHARRAK
Zerbitziburua	1	A2	Finkoa	Iraungitzeaz, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 19. artikulua araututakoaren arabera, lanpostu hau funtzionarioentzat gordeta egon beharko lukeelako.
Makinari-langileburua	1	E (30/1984 Legea)	Finkoa	Izen bereko postua C2 azpitaldera atxikituta hornitzean, postua agortuko da
Makinari-langileburua	1	C2	Bete gabe	Barne igoerarako gordeta
Makinaria	1	E (30/1984 Legea)	Finkoa	Izen bereko postua C2 azpitaldera atxikituta hornitzean, postua agortuko da
Makinaria	1	C2	Bete gabe	Barne igoerarako gordeta
Lan anitzetako langilea	1	C2		Denboraldi baterako pertsonal laboralarekin okupatua
Mantenimendu langilea	1	C2		Denboraldi baterako pertsonal laboralarekin okupatua
Mantenimendu langilea	1	C2		Denboraldi baterako pertsonal laboralarekin okupatua
Mantenimendu langilea	1	C2		

2016 URTEA				
SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE ERREKTOREAK 2016KO URTARRILAREN 18AN EGINIKO BILKURAN, 2016RAKO ONETSI DUEN MANKOMUNITATEKO PLANTILA ORGANIKOA				
PERTSONAL FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK				
LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KOPURUA	AZPITALDEA 7/2007 Legea	EGOERA	OHARRAK
Ingurugiro Teknikaria	1	A2		Gaur egun behin behineko pertsonal laboralarekin betea.
Administraria	1	C1		Gaur egun behin behineko pertsonal laboralarekin betea.

2016 URTEA													
SASIIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE ERREKTOREAK, 2016KO URTARRILAREN 18AN EGINIKO BILKURAN, 2016 EKITALDIRAKO ONETSI DUEN MANKOMUNITATEKO LANPOSTUEN ZERRENDA													
PERTSONAL LABORAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK													
Ordena zkoa	Deltara	Lanpostu kopurua	Hortikoteko era	Azpitaldea (1)	Arduraldia	Saila	Lanpostu horretarako esijitako betebeharrak					Oharrak	
							Adskripzioa			Hizkuntz eskakizuna			Ezijitako titulazioa
							Taldea edo eskala (2)	Azpieskala (3)	Mota (4)	Koefizientea	Demogorritokotasun data		
1	Zerbitzuburua	1	-	A2	% 100	Bulego Teknikoa	A.B.	Z.B.	E.T.	4	93/06/01	Injeneru tekniko titulua, unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko, LHko hirugarren maila edo balokidea	Ingeniutzaia, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 19. artikuluko araututakoaren arabera, lanpostu hau funtzionarioentzat gordeta egon behar du lortzeko.
2	Makinari-langileburua	1	-	E 30/1984 Legea	% 100	Zaborteia	A.B.	Z.B.	O.P.	2	92/03/23		zen bereko postua C2 azpitaldere abokatu horitzean, postua agortuta da
2	Makinari-langileburua	1	Bare igorria	C2	% 100	Zaborteia	A.B.	Z.B.	O.P.	2	08/06/30	Escola-mailako titulua, LHko lehen maila edo balokidea	Bare igorarako gordeta
	Makinaria	1	-	E 30/1984 Legea	% 100	Zaborteia	A.B.	Z.B.	O.P.	2	92/03/23		zen bereko postua C2 azpitaldere abokatu horitzean, postua agortuta da
3	Makinaria	1	Bare igorria	C2	% 100	Zaborteia	A.B.	Z.B.	O.P.	2	08/06/30	Escola-mailako titulua, LHko lehen maila edo balokidea	Bare igorarako gordeta
4	Lan aniztasun langilea	1	Oposizio-Lehiaketa	C2	% 100	Zaborteia	A.B.	Z.B.	O.P.	2	01/04/18	Escola-mailako titulua, LHko lehen maila edo balokidea	
5	Mantentimendu langilea	1	Oposizio-Lehiaketa	C2	% 100	Garbigunea	A.B.	Z.B.	O.P.	2	97/03/05	Escola-mailako titulua, LHko lehen maila edo balokidea	
6	Mantentimendu langilea	1	Oposizio-Lehiaketa	C2	% 100	Garbigunea	A.B.	Z.B.	O.P.	2	08/06/30	Escola-mailako titulua, LHko lehen maila edo balokidea	
7	Mantentimendu langilea	1	Oposizio-Lehiaketa	C2	% 100	Garbigunea	A.B.	Z.B.	O.P.	2	11/12/07	Escola-mailako titulua, LHko lehen maila edo balokidea	

- (1) Apirilaren 12ko Administrazio publikoko langileen Oinarriko Estatutuari buruzko 7/2007 Legearen arabera
(2) A.B.= Administrazio Berezia; A.O.= Administrazio Orokorra
(3) Z.B.= Zerbitzu Berezia; A.A.= Administrazio Orokorreko Administrazioa
(4) E.T.= Erdi Mailako Teknikaria; T.L.= Teknikari Laguntzailea; O.P.= Ofiziala Personala

2016 URTEA																
SASIIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE ERREKTOREAK, 2016KO URTARRILAREN 18AN EGINIKO BILKURAN, 2016 EKITALDIRAKO ONETSI DUEN MANKOMUNITATEKO LANPOSTUEN ZERRENDA																
PERTSONAL FUNTZIONARIOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK																
Ordena zkoa	Deltara	Lanpostu kopurua	Hortikoteko era	Azpitaldea (1)	Ordainketa osagarriak	Arduraldia	Saila	Lanpostu horretarako esijitako betebeharrak					Oharrak			
								Lanpostuaren osagarriaren maila	Berarrazio osagarria (6)	Adskripzioa				Hizkuntz eskakizuna		Ezijitako titulazioa
										Taldea edo eskala (2)	Azpieskala (3)	Mota (4)		Koef.	Demog data	
1	Ingeniutzaia Teknikaria	1	Oposizio-Lehiaketa	A2	22	7.096,95 euro	% 100	Bulego Teknikoa	A.B.	Z.B.	E.T.	3	97/03/05	Injeneru tekniko titulua, unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko, LHko hirugarren maila edo balokidea	(5)	
2	Administrazioa	1	Oposizio-Lehiaketa	C1	20	6.120,53 euro	% 100	Bulego Teknikoa	A.O.	A.A.	T.L.	3	98/12/23	Babeser titulua, LHko II. maila edo parekoa	(5)	

- (1) Apirilaren 12ko Administrazio publikoko langileen Oinarriko Estatutuari buruzko 7/2007 Legearen arabera
(2) A.B.= Administrazio Berezia; A.O.= Administrazio Orokorra
(3) Z.B.= Zerbitzu Berezia; A.A.= Administrazio Orokorreko Administrazioa
(4) E.T.= Erdi Mailako Teknikaria; T.L.= Teknikari Laguntzailea; O.P.= Ofiziala Personala
(5) Gaur egun pertsonal laboralarekin bete da.
(6) Kopurua bere orduan onartu eta aplikatzen den Hiztamenarekin batera egiten diren kalkuluen araberakoa izango da.

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. 2016. ekitaldirako plantila organiko eta lanpostu-zerrendari hasierako onespina ematea.

Bigarren. Jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, hamabost eguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik ez bada aurkezten behin betiko onartuta geratuko da.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK. Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera arratsaldeko seiak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, idatzi hau idatzi eta sinatu dut.